

## GAKO EKONOMIKOAK

- Arinduz doa arrisku politikoa Europan eta, aldi berean, AEB aldera lerratuz.
- Emaitza mistoak errenta aldakorrean, itxiera negatiboekin herrialde emergenteetako merkatuan eta igoerekin herrialde garatueta.
- Interes-tasek behera egin dute oro har.
- Dolarraren balio-galera.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Maiatza markatu duten ezaugarri nagusiak izan dira gertaera politikoak, argitaratutako irabaziak -espero zirenak baino handiagoak- eta datu makroekonomikoen tonu ona. Europan, orain arte urteko zita handiena izan denarekin hasi zen hilabetea. Maiatzaren 7an, Macrom hautagai europazalea hautatu zuten Frantzia herrialdeko presidente berri. Horrekin argitu ziren Europaren batasunaren jarraipenari buruzko zalantzak, eta egonkortasun politiko handiagoa etorri zen merkatura. Baina, hilaren azkeneko egunetan, Greziako zorra berregituratzeko prozesuaren inguruko desadostasunek eta Italian hauteskundeak aurreratzeak izango lukeen emaitzari buruzko ziurgabetasunak, berriro ere kezka ekarri zuten inbertsoreen artera. Kezka hori areagotu egin zuen Trump barne-arazoetan murgilduta ibiltzeak eta, ondorioz, agindutako neurri fiskalen implementazioa zalantzan jartzeak. Hala ere, ezegonkortasun politiko handiago hori neurri batean konpentsatu egin du datu makroekonomiko onak argitaratzeak, horrek erakusten baitu ekonomia amerikarraren sendotasuna, FEDI atea irekiz beriz ere beste tasa-igoera bat egin dezan. Europan ere ikusi den tonu makroekonomiko onak, hazkunde-estimazioak gorantz berrikustera eraman du Europako Batzordea.

## ERRENTA ALDAKORRA

Emaitza mistoekin amaitu dute hila burtsek. Alde batetik, merkatu emergenteek, positiboan amaitzea lortzen dute, baina dolarraren ahultasunagatik, hilan zehar euren mugimendua oso ahula izan bait da. Horien artean azpimarratzekoa Brasilgo burtsaren %4ko beherakada, Petrogas-i buruzko ustelkeria-kasuaren ondorioz, herrialdeko presidentea, Tremmer, tartean harrapatuta. Kontrako aldean, igoerak izan dira merkatu aurreratueta, tonu makroekonomiko positiboak eta lehenengo hiruhileko emaitza enpresarialen denboraldi-amaiera onak lagunduta, horrekin indargabetuz, alde batetik, Trump protagonista izan zuten eskandalo politikoek ekarritako ziurgabetasuna eta, bestetik, Italian hauteskundeak aurreratzeak posibilitateak hilaren azkeneko txanpan Europan sorrarazitako zalantza berriak. Horrela, S&P500 eta Nasdaq indizeek berriro lortu dute maximo historikoetara heltzea. Aldi berean, Atlantikoaren alde honetan, Ibex 35 eta Dax indizeek %1,5 inguru irabazi dute, eta Eurostoxx 50 ia-ia berdin geratu da. Azkenik, aipatzekoa da Ftse 100 britainiarraren eboluzioa, %4,40 inguruko igoera lortuta, datorren ekainaren 8ko hauteskundeen zain, inkesta batzuek iragartzen dutenez Theresa May-k gehiengo absolutua galtzeko arriskua duenean.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2017ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	10.880	EUR	%1,53	%16,34
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.554,59	EUR	%-0,14	%8,03
S&P-500	AEB	2.411,8	USD	%1,16	%7,73
DOW JONES	AEB	21.008,65	USD	%0,33	%6,31
NASDAQ 100	AEB	5.788,8	USD	%3,68	%19,02
NIKKEI-225	JAPONIA	19.650,57	JPY	%2,36	%2,81
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.005,33	USD	%2,80	%16,59
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	1.911,74	EUR	%1,78	%9,17

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Estatu Batuetako presidentearen inguruan sortutako polemikak eta agindutako neurriak gauzatzeko izango lituzkeen zailtasunek, behera bultzatu dituzte AEBko interes-tasak. Europan, Alemaniako 10 urterako tasak hilaren hasierako maila berean bukatu du ia-ia, eta periferian, berriz, arriskutik aldentzeko joera txikiagoa izan da, Frantziako hauteskundearen ondorioz, eta horrek beheranzko mugimenduak eragin ditu tasetan, arrisku-primak murriztuz. Salbuespen bakarra Grezia izan da, arrisku-prima 35 op igota, zor publikoaren sostengagarritasunari buruzko adostasunik lortu ezinda geratu ostean.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2017ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,33	0,00	-0,01
	6 HIL.	-0,25	-0,01	-0,03
	12 HIL.	-0,13	0,00	-0,04
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,71	0,02	0,05
	5 URTE	-0,43	-0,05	0,10
	10 URTE	0,30	-0,01	0,10
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,28	-0,02	0,00
	5 URTE	0,35	-0,09	0,08
	10 URTE	1,55	-0,10	0,17

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK

Dibisen aldetik, nabarmentzekoa da dolarraren balio-galera, Trumpen eskandalo berrien eraginez, agindutako erreforma fiskala oraindik gehiago atzeratzeko posibilitateak lastatuta. Libera ahultzen ari da euroarekiko, martxoko maila apaleneraino, kontserbadoreek laboristen aurrean duten abantaila murriztuz doala erakusten duten inkesten emaitzaren ondorioz.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg